

"Covid-19aren Liburu Zuria" aurkeztu dute

Jarduera ezberdinetan aditu diren hainbat lagunek egitasmoa aurkeztu dute, hamabost hilabeteko hausnarketa prozesuaren ondoren / 9



Euskaldunon Egunkariaren itxiera hizpide duen antzezlanaren Andoainera iritsi da / 15



Saharan, Kuban eta Guatemalan proiektuak martxan jartzeko laguntza eman du Urnietako Udalak / 7

Unanibiko tirolina ezbaian jarri dute

Unanibiaren Lagunak ekimena eta Eguzki talde ekologista aurka agertu dira / 2-3



Trasteleku eta gordelekuen alokairua Urnietan

TRASTELEKUAK

>> 44€

2 m² / BEZa barne

GORDELEKUAK

>> 97€

5 m² / BEZa barne



ASKOTARIKO TAMAINA
ETA AZALERA



BIDEKOZANTZA
24 ORDU



SARBIDE
ETENGABEA



605713127

Igarategi Industrialdea 70 URNIETA
Bulegoa: Muebles Iturbe
barne.eus



Padura eta Plazaola, aurreko osteguneko hitzaldian. AIURRI

Tirolina ezbaian jarri dute

Aste Santua iristear zela, Andoaingo Udalak Leitzaran Bisitarien Etxea zabaldu zuen. Eta horrekin batera, hainbat ekimen martxan jarriko zituela iragarri zuen. Besteak beste, Unanibiko zubiaren gainetik igaroko den tirolina

Xabier Lasa ANDOAIN

Udalerrian zeresana ematen ari den gaia da, eta hainbat herri-tarrek tirolinaren aurkako sensibilizazio lanari ekin diote. Aurreko astean bi ekitaldi antolatutako hitzaldian. Lehenik, hitzaldia Bastero Kulturgunean. Eta, bigarrenik, elkarretaratzea Goikoplazan.

Hitzaldia Basteron, Eguzki taldearen parte hartzearekin

Andoaingo Udalak Unanibian jarri dituen tirolina eta Ferrata bidea aztertu zituzten Oskar Padura eta Garikoitz Plazaola Eguzkiko kideek, Unanibiaren Lagunak ekimenak maiatzaren 6an antolatutako hitzaldian. Proiektuak, bioaniztasun bereziko leku bat kolonizatuko duela eta hori ez dela kontuan hartu salatu zuten.

Oskar Padura Eguzki talde ekologistako abokatua da, eta

ingurugiroarekin zerikusia daukaten egitasmoen arlo juridikoa aztertu ohi du batik bat. Eginkizun horretan pilatu duen eskarmentuaz mintzatu zen, lehenbiziko eta behin. “Berdin dio erakunde publikoetan alderdi bat egon bestea egon, bi ideia erabiltzen dituzte maiz, natura-gune berezietan (Txingudi, Aralar, Gorbea...) proiektuak gauzatzeko orduan: baloreen jartzea, eta, zirkuluaren kuadratura. Nahiz eta leku horien aldeko babes-figurak deklaratu, “baloreen jarri” behar izaten dute, turismo jasagarriaren eta antzeko ter-

"ADMINISTRAZIOAK LASTER TOPA DEZAKE BERE GOGOKO TXOSTENA EGINGO DION AHOLOKULARIA"

minoen aitzakiarekin. Natura-gune horiek, berez, balorea edukiko ez balute bezala! Era horretan, administrazioak proiektu bat nahitaez aurrera eramanez nahi duenean, laster topatuko du bere gogoko txostenak egingo dizkion aholkularitzaren bat”.

Tirolinaren eta ferrata bidearen kasuan, antzeko eskema jarraitu dela adierazi zuen Padurak.

Arau aldaketa

Eguzkiko abokatuaren ustez, administrazioek badakite nola jokatu lege eta araudiekin, eta zenbaitetan bere asmoentzat traba badira, badakite horiek euren interesetara egokitzen. Jokaera horren adibidetzat jo zuen Andoaingo Udalak 2018ko urtarrilean Leitzarango parkearen antolamenduko araudia aldatu izana. “Antolamenduak ez zuen uzten parkean bertan aisialdiarekin

edo kirolarekin lotutako instalaziorik ezartzen, eta hortaz, aldatu egin zuten, tirolina eta ferrata bideari atea irekitzeko. Gaur tirolina izan da, eta bihar, esate baterako, kanping bat izan daiteke. Azken batean, garapen iraunkorraren etiketa jarrita, dena justifikatua dagoela ematen du”.

Padurak gogoratu zuen Leitzaran ibaiari garrantzi handiko hiru babes-figura ezarri zaizkio la orain arte: Biotopo Babestua (espezie biologiko desberdinek bizitzeko duten toki fisikoa), KBE (Kontserbazio Bereziko Eremua, Jaurlaritzako Kontseiluak izendatutako garrantzi komunitario-lekua), eta, Natura 2000 Sarea (Naturagune babestuen sarea, Europar Batasunaren mailakoa). “Unanibiko zubia andoaingarrentzat sinbologia handiko lekua izateaz gain, instituzio desberdinek legeaz aitortu izan dute ingurumenaren ikuspuntutik aberastasun handiko habitatean kokatzen dela; gauzak horrela, Udalak baztertu egin behar luke Unanibian bertan instalaziorik ezartzea. Ulergaitza da leku horretan kokatzea proiektu hori”.

Padurak hitzaldian zehar auzitan jarri zituen proiektuaren barruan egin diren azterketak ingurumenaren gaineko eragina jakiteko. “Nik ehunka proiektu aztertu ditut, eta normalki, ezer ez egitearen alternatiba berehala baztertu ohi dute, bi esaldi erabilita. Oraingoan diotenez, halako instalazio bat ez jartzea turismoari eta hezkuntzari begira bailarak daukan eskaintza alferrik galtzea litzateke, eta horrek, Andoaingo garapen sozio-ekonomikoaren garapena galaraztea eragingo lioke. Makina bat proiektuetan entzun izan dugun *mantra* darabilta, alegia”.

Ingurumenaren gaineko eragina jakiteko udalak egin duen azterketa beste zenbait aspektuetan ere kritikagarria dela gaineratu zuen Padurak. Leitzaran ibaiako ugaztun eta hegaztienganako eragin kaltegarriari dagokionez, esate baterako, nahiko azterketa arina egin dutela esan zuen. Bestalde, zeharkako

eraginak ere apenas jorratu direla salatu zuen: “proiektuak erakarri dezakeen jendea, herri basoentzat eragin ditzakeen kalteak, obrarako bideak, zaborren sortzea...”.

Lehentasuna, gizakien aisialdia

Gari Plazaola Eguzkiko kideak, Andoaingo Udaleko ordezkari-kin izandako bileren berri eman zien Basteroko entzuleei. “beraiek behin eta berriz esan digute Leitzaran erabat zaindu nahi dutela. Eta ez daukagu zertan ukaturik asmo hori. Baina kokapena izan da gure haserrearen eragin duena. Tirolina eta ferrata bidea Leitzarango Biotopoaren gune babestuaren barruan eraiki ditzuzte. Europako Batasunak Leitzaran Natura2000 sarean sartu zuen, lehentasunezko habitat gisa. Hortaz, lehentasuna zertarako markatu?”.

Zer pentsatua ematen omen duten beste bizpahiru datu eman zituen segidan: “Leitzaranen, Biotopoaren izendapenak 91 hektarea bakarrik babesten ditu, ez bailara osoa; ibaia eta bost metroko ibai-ertzak alde banatan, alegia. 91 hektarea horietatik, Andoaini ia 16 hektarea dagozkio. Hots, Andoaingo azalera guztia-
ren %0,58a besterik ez dago babestua. Eta hain justu, zer da eta, Andoainen babestuta dagoen %0,58an instalazio bat ipintzea bururatu zaie!”.

Parte-hartzeko aukerarik ez

Plazaolak adierazi zuen Eguzkik hainbat helegite jarri zituela proiektuaren aurka 2019an. “Helegiteek lehentasuna inguruan eta habitatean jartzeko eskatzen zuten. Ibaian eta bertako haltzadiak zaintzeko, eta ur-zozoak, martin arrantzaleak, bisoi europarrak, kakalardo adardunak eta beste hainbat bizidunek bizileku egokia izan dezaten. Eta ez gizakiok aisialdi azpiegiturak muntatzeko. Baina ikusi dugu, zoritxarrez, naturaguneak etiketa gisa erabiltzeko joerari eutsi zaiola, jendea erakartzeko, turismoa eta aisialdia indartzeko, ingurune horien babesa babestu beharrean”.

Jaurlaritzak helegiteei ez die la erantzun gaineratu zuen.

Aldi berean, proiektuaren gauzatze prozesuan herritarrei parte-hartzeko aukera galarazi egin zaiela azpimarratu zuen. “Egun, Andoaingo Udalak zein Jaurlaritzak hitzetik hortzera darabilten

"TURISMOAN ETA AISIALDIAN JARRI DA INDARRA, INGURUNEA BABESTEAREN KALTETAN"

esaldia da herritarren parte-hartzea. Baina egitasmo honetan ez da halakorik gertatu. Legeak agintzen zuena bete dute, besterik gabe. Ez da legez kanpoko prozesua izan, ez du ezkutuko bidea jorratu, baina herritarrekiko transparentziatik urrun ibili da”.

Deiaren efektua

Proiektuak etorkizunean eduki dezakeen deiaren efektuarekin kezka agertu zuen Plazaolak. “Hasieran, eguneko 30 erabiltze aipatu zuten, eta orain 8ra jaitxi dute. Baina aukerak irekita daude, eta nork daki etorkizunean, neurri zuzentzaile batzuk ezarri ostean, zenbat pertsonentzat jarri dezaketen...”.

Leitzar, Parke Naturala

“Halako egitasmo txiki batekin zergatik hainbesteko zalaparta”, galdetu izan diotela adierazi zuen Plazaolak, “are gehiago Leitza-ranen beste makina bat arazo daudenean. Bada, guretzat, badu garrantzia egitasmo honen inpaktuak, biotopoan leku berri baten kolonizazioa dakarrelako, naturaren kaltetan”.

Leitzarango bailararen kudeaketari heldu zion segidan, aitor-tuz Leitza-ranen inpaktua eragiten duten beste hainbat erre-alitate ere ondo aztertu beharrekoak direla: hala nola, “gizakien bainuekin zerikusia eduki dezakeen ur kalitatea, ehiza, mo-toak, erabiltzaile (oinez, bizikletaz, korrika...) kantitatea, baso-politika...”.

Azkenik, Garikoitz Plazaola Leitza-ran Parke Naturala izendatzearen alde mintzatu zen. “Aldarrikapen zaharra da, auto-biaren gatazkaren garaitik datorrena; promestu ziguten orduan, baina ez da gauzatu harrezkero. Ez dakit lortuko dugun tirolina eta ferrata bidearen instalazioa kentzea, baina Leitza-ran babes-tearen alde sortu den herri mugimendu hauxe baliatu beharko genuke, aldi berean, parke naturalaren aldeko aldarrikapenari eusteko berriro ere, Leitza-rango bailararen kontserbazioak eta bere bioaniztasunak irabaziko duelako horrela”.

"SORTU DEN MUGIMENDUA LEITZARAN BABESTEKO BALIATU BEHARKO GENUKE"



Igande eguerdian elkarretaratzea egin zuten Goikoplazan. AIURRI

Elkarretaratzea Goikoplazan

Unanibian Udalak ipini eta maiatzean martxan jartzeko asmoa duen tirolinari eta Ferrata bideari ezezkoa azaltzeko, hainbat herritarrek elkarretaratzea egin zuten Goikoplazan, Unanibiren Lagunak taldeak deituta. Unanibiko paraje naturala herriaren altxorra delako, eta leku hori andoaindarrentzat ez ezik naturzale guztientzat ere leku kuttuna delako egitasmoaren kontra agertu direla adierazi zuten taldeko ordezkari Julen Arribillagak eta Olatz Telletxeak.

Udalak, aurreko legeegintzaldian, egitasmo hori gauzatzeko biotopo babestuaren araudia aldatu izana salatu zuten. “Inguru hori biotopo babestua zen eta araudia aldatu gabe ezingo lukete bertan jolas-kirol ekintzarik sartu”. Tirolina eta ferrata bidea egiteko obra berak baino, erabilerak kalte handiagoa eragingo duelakoan daude.

UNANIBIAREN LAGUNAK EKIMENAK BESTE KOKAPEN BATEAN EGITEA ESKATU DU

EGUZKIRENTZAT AISIALDIA LEHENETSI DA, HABITATA ZAINTZEAREN GAINETIK



Arribillaga eta Telletxea aritu ziren hizlari lanetan. AIURRI

Unanibiaren Lagunak taldea

Unanibiren Lagunak taldeak hiru puntuz osatutako eskakizuna egin zuen Goikoplazan egindako elkarretaratzean:

1. Tirolina eta ferrata bidearentzat beste leku bat topatzea, Leitza-randik kanpo.
2. Leitza-ranen babestua dagoena zaintzea, interbentziorik gabe, dagoen bezala utziz.
3. Leitza-ran natur parkea izendapenaren aldeko urratsak ematen hastea.

Eguzki talde ekologista

Garikoitz Plazaolak ere hitza hartu zuen elkarretaratzean. Egitasmo honen kasuan aisialdiari lehentasuna eman zaiola adierazi zuena, Otieta inguruko habitat aberatsa

babesteko premiaren gainetik. Aldi berean, egitasmoa burutuzerako Udalak prozesu parte-hartzaileari uko egin diola salatu zuen.

Azkenik, Gipuzkoako natur taldeak koordinatzen dituen Aritzalde taldeko Xabier Rubiok babesa agertu zien Unanibiaren Lagunak Taldeari eta elkarretaratzean parte hartu zutenei, eta naturaren alde lanean jarrai dezaten animatu zituen.

Sinadura bilketa

Unanibiaren Lagunak taldeak proiektuaren aurkako sinadura bilketarekin jarraitzen du, change.org plataforman. Sinadurak Udalaren, Aldundiaren eta Bisitarien Etxea kudeatzen duen enpresaren esku uzteko asmoa dute.



Larunbateko irudia. AIURRI

Kontrolik gabeko isurketak Leitza-ranen

Larunbatean enegarren isurketa egin zuten Leitza-ran ibaian. Ez da fenomeno berria herrian

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Aiurriko irakurleen bidez jasotako irudietan kolore zuriko hari bat antzematen zen Leitza-ran ibaiaren bazterrean. Garai bateko Galgo paper fabrikaren kanal txiki bat baliatuta, ezezagun batzuk pintura zuria izan zitekeena jaurti zuten bertatik. Aurrekoetan egin bezala, Eusko Jaurlaritzaren URAK agentziari jakinarazpena egin zitzaion. Sare sozialetan emandako erantzunaren arabera, horrelako gertaerak ikusiz gero, 112ra deitzeko aholkua eman zuten: "Gogoan izan garrantzitsua dela 112 zenbakira deitzea ibaian ez ohiko gertakariaren bat atzematen denean, ezarritako protokoloak abian jar daitezten eta ahalik eta lasterren hartu ahal izan daitezten, hala badagokio, beharrezkotzat jotzen diren neurriak".

Ez da isurketa egiten den lehen aldia. Behar baino gehiagotan gertatzen ari da. Zorionez, geroz eta herritar gehiago dira gertaera horiek salatzen dituztenak.

Leitza-ran ibaiako isurketa ez da bakarria, Andoainen. Bazkardo eta Leizotz aldean, Ziako errekan, isurketa handi samarra izan zen. Bertako bizilagunen arabera, ohikoa bilakatu da. Kasu horretan, inguruko enpresa batetik dator isurketa.

POSTONTZIA

GREBA KOMITEA ANDOAIN

Elkarretaratzea

2020. urteko urtarrilaren 30ean, pandemiak gure bizitzak goitik behera aldatu baino hilabete lehenago, Euskal Herriko karta sozialak greba orokorra deitu zuen Hego Euskal Herrian. Bizitza duinak aldarrizatzeko greba izan zen. Ziurrenik, pandemia egoera honetan areagotu den prekaritate egoerak salatu eta bizitzak erdigunean jartzeko aldarri bat zen.

Andoainen, beste herri guztietan bezala, greba komitea antolatu zen. Eragile sozial ezberdinetako pertsonak elkartu eta ilusioz ekin genion lanari. Harremanak eragileekin, propaganda jarri, mobilizazioen antolaketa... lana eta ilusioa.

Greba aurreko egunak zein greba eguna bera, normaltasun osoz eman zen. Eta soilik poliziaren jarrera errepresiboa izan zen egun horren arrakasta zikindu nahi izan zuena.

Greba bezperatan, udaltzaingoak hiru gazte identifikatu eta pintada batzuk egin izana leporatu zieten. Inolako salaketarik gabe, pintada batzuen garbiketa faktura igorri zien udalak gazte hauei. Orotara 1.278 euroko faktura bat. Inolako zigorririk egon ez zenez, errekurtsioa jarri zuten. Eta errekurtsioa erantzun gabe, berriz ere faktura bidali zitzaion, %20ko errekargo

batekin garaiz ordaindu ez izanagatik. Azkenean ordaintzea erabaki zuten, errekarro berririk ez egoteko. Prozesu guzti honek urtebeteko iraupena izan du, azken errekarro hau martxoan jaso zutelarik. Horregatik orain adierazi eta salatzearen zergatia.

Bestalde, greba egunean, pikete informatiboak egiten ari zirela, inolako istilurik egon ez arren, udaltzain bat agertu zen eta partehartzaileak grabatzen hasi zen. Une horretan zegoen giro lasaiekin bat egiten ez zuen jarrera probokatzaila izan zen. Badirudi grabatzeaz gain, banan-banan identifikatzeko ariketa egin zuela, hilabete batzuk beranduago, konfinamenduan geundela, hamaika lagunei Ertzain etxetik deitu baitzieten. Ikertuak izaten ari zirela eta deklaratzera deituak izango zirela mehatxatuz.

Guztiz salagarria iruditzen zaigu errepresio polizial hau. Greba eskubidea, eskubide legitimoa delako eta honen kontrako jarrera aktiboa, greba egunean bizitako normaltasunaren kontra doalako.

Guztia salatzeke Andoaingo Greba Komiteak deitutako elkarretaratze deitzen ditugu herritarrak. Maiatzaren 14an izango da Goikoplazan, 18:00etan hasita.

IRITZIA

MAIDER LAINEZ ANDOAINGO PSE-EKO IDAZKARI OROKORRA

Inoiz baino gehiago, gure oroimenean zaude

2021eko maiatzaren 7an:

2000. urtean hil zintuztenetik bigarren urtez jarraian, eta COVID-19aren ondorioz, Andoaingo sozialistok, lagun askorekin batera, ezin izango dugu lore-eskaintza hau egin nahi genukeen bezala. Ez zaigu egokia iruditu herritarrei eta komunikabideei ekitaldi honetan parte hartzeko deia egitea. Ildo horretan, Mari Pazen eskuzabaltasuna azpimarratu eta eskertu nahi dut, erabaki hori ulertu baitu, baita iradoki ere, erantzukizunez jokatzeko beste edozein desio pertsonalen aurretik.

Egia da gaur gogorra izango dela besarkada hori, hainbeste berotzen eta batzen gaituen musu hori ezin ematea. Baina, fisikoki egin ezin badugu ere, hitz hauen bidez, besarkadarik eta musurik handiena bidali nahi diet M^a Pazi, Aitziberi, Alaini, zure familia osoari eta gaur aurkitu ohi ditugun lankide eta lagunei.

Izan ere, Jose Luis, oso gogoan zaitugu, nahiz eta duela 21 urte ETako hiltzaile batzuek zure bizia kentzea erabaki, zure ideiak defendatzeagatik eta pentsalari aske bat izateagatik, askatasuna eta herri hau hitzen bidez defendatzeagatik, lehenik Francoren aurka eta gero ETaren aurka. Zoritarrez, zuk eta zure



Maider Lainez, Mari Paz Artolazabal eta Oscar Mendo, aurtengo lore eskaintzan.

familiak prezio garestiegia ordaindu zenuten horregatik. Baina zure ondarea oso bizirik dago eta ez gaituzte isilarazi.

Gero eta zailagoa egiten zaigu hainbeste indarkeriaren zentzugabekeria ulertzea, baita zure hilketak eta beste hainbatek eragindako sufrimendu guztiaren zergatia ere. Zertarako hainbeste familia hondatu? Izan ere, argi daukagu terrorismoak ez duela inoiz zentzurik edo justifikaziorik izan.

Ausarta izan behar dugu eta argi eta garbi esan.

Gaur inoiz baino gehiago aldarrizkatzen ditugu zure hitzak, Jose Luis; ahots konplexu eta beldurrik gabea. Eta, herri honetan gertatu denaren irakurketa kritikoa egin ondoren, guztion artean memoria kolektibo eta

inklusiboa eraiki behar dugu. Baina ezin izango dugu hori egin, batzuek gertatutakoa zuritu nahi badute edo gauzei beren izenez deitu nahi ez badiete.

Hain zuzen ere, memoria hori izan behar da gure bizikidetzara eraikitzeko oinarria. Etorkizunari begiratu behar diogu, baina memoriatik, egiatik, justiziatik eta ordainetik azterketa sakona egin ondoren. Desberdinarekiko errespetuan oinarritutako bizikidetzara da erronka, baina oroitu, memoriarekin.

Jose Luis, gaur inoiz baino nabarmenago geratzen da distantziak eta denborak ez dutela ahazten, hemen gurekin jarraitzen duzulako, gure bihotzean eta gure oroimenean.



andoainDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Umietan, 32 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea.
20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus
@aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trutxuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocío Arias (Andoain), Axun Jauregi, J. Mari Sagaseta (Umietan).

Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus.
Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zerua Multimedia.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hikuntza Berlitasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO KAZETARIA

Amore infinito

Ez daukat iraganeko memoria onik, dagoeneko. Giroko lehen oroitzapenez galdetuko balidate, zalantza egingo nuke. Ziur aski Leioako campus-eko kafetegiko arratsalde pasak, esango nuke, Miguel Indurain Atarrabiako morroskoaren balentriak ikusten, Giroa eta Tourra bitan irabazi zitueneko urteak, 1992 eta 1993. 'Piper' asko egiten genuen maiatzetan, baina kazetaritzako titulua eman ziguten, hiru urte geroago... Oroitzapenen kutzatxo kolpatuz beste une ikaragarri batekin gogoratu naiz: 1988ko Giroak Gavia elurtua pasa zuen egun ikaragarri hura.

Johan Var de Velde herbeheretarra elurpean, zale batzuen karabana batean sartu behar izan zuen edari bero bat edatera. Txirrindulari denak aurpegia puztuta, hotzak akabatzen, laguntzaile eta zaleek xirak jartzen laguntzen. Tropel erdia Bormio herrirainoko jaitsiera autoan egiten, bizikleta gainean jaisteak heriotza arriskua ekar zezakeelako. Irudi haiek, etapa hura ez zuten telebistan eman zuzenean, etapa bukatuta baizik. 33 urte geroago tinko jarraitzen dute iltzatuta nire memorian. Ikusi irudiak esteka honetan: <https://www.youtube.com/watch?v=tEAvkPtHF6Y>

Pentsatu nuen orduan: 'Txoko horretara joan behar



diat, ba, egunen batean'. Egungo belaunaldiak sakelako eta bideo jokoen seme-alaba diren bezala, gu telebistaren seme-alaba ginela hazi eta hezi ginen, eta Tourrarekin itsutu ginen. Itsutu eta mozkortu, Tourrak dena jaten baitzuen. Baita gazte garaiko lehen bidai proiektu guztiak. Dena zen Tourra, eta ezer ez Giroa. Girora joan bitartean 20-25 aldiz egongo nintzen Tourrean. Ez naiz damu, hala tokatu zen, baina urteak pasata, jakin badakit orain Giro zalea naizela, Tourra baino, eta Girora joango nintzatekeela Tourrera baino lehenago, zalantzarik gabe.

Askoz proba politagoa delako, irekiagoa, lehiatuagoa, eta askoz menditsuagoa. Italiak dituen mendateei ez die inork itzalik egiten. Ezta Galibierrek edo Tourmaletek. Eman iezazkidazu Gavia bat, Stelvio bat, Marmolada bat, Agnello bat, eta zuretzat, irakurle estimatu, 10 Galibier,

10 Tourmalet edo Aubisque. Edo Izoard edo Alpe d'Huez. 2010. urtean egon nintzen lehen aldiz Giroan. Kronplatz eta Alpe di Pampeago oroitzen ditut. 2017an, herriko lagunekin Passo dello Stelvio ezagutu nuen, 2.758 metroko mamutzarra. Barre algaraka hasi aurretik, igo ere bai bizikletan, ia hiru orduz. Iritzi artikulu honetan agertzen den maillota bertan erosi nuen! Passo Sella eta Pordoi era igo nituen, eta akabo. Nireak egin zuen!

Amore infinito hartu nion Giroari. Vivailgiro traola ezaguna nire egin. Giroa eta Dolomitak, nola esan... Ez dakit nola esan. Trentinoko Girora bueltatu nintzen 2018an (egun Alpeetako Tourra, Hego Tirolen), eta 2019an Colle dell'Agnello eta Col de la Lombardara. Agnallon behera hartu zuen muturreko latza Steven Kruswijk-ek, eta gurekin zen kataluniar batek bilatu zituen 300 euroko betaurrekoak. Gu betaurrekorik gabe, baina Giroarekin maiteminduta. Beti. COVID pandemia gaiztoak mugak jarri dizkigu, baina askatuko dira. Berandu baino lehen...

AURTENGO GIROAREN KONTAKIZUNA, ARRATSALDERO AIURRI.EUS WEBGUNEAN

POSTONTZIA

OSTALARITZA ELKARTEAK EUSKADI

Presazko bilera eskaera

Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak, Bizkaiko Ostalaritza Elkarteak eta SEA Hosteleria-Ostalaritza Elkarteak gutun bat bidali dute Osasun sailburuarekin eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun, Turismo eta Merkataritza sailburuekin presako bilera bat egiteko, Eusko Jaurlaritzak datozen asteetan egingo duen ibilbide-orria bertatik bertara ezagutzeko, pandemiaren kudeaketari eta sektoreari ezarritako murrizketen etorkizuneko bilakaerari dagokienez.

Aurreko asteburuan, alarma-egoera amaitu ondoren, Euskadiko hondartzak, parkeak eta plazak bete dituzten ospakizunek alarma-argiak piztu dituzte sektorean. Euskadiko ostalaritza beldur da, murrizketei dagokienez, plater hautsiak ordainduko ote dituen, egun hauetan bizi izan diren gizalegerik gabeko jarrerak eragin ditzaketen kutsadura-gorakadengatik.

Azken egunotan, Eusko Jaurlaritzako hainbat iturrik onartu dute, mugikortasuna, pertsona- taldeak edo kaleko

egonaldi-ordutegiak kontrolatzeko esparru juridikorik ez dagoenez, ostalaritzaren eskaintza sozializazio kontrolatu eta segururako gune bihur daitekeela, kontrol zaileko tokietan afariak, jaiak eta ospakizunak ugaritzearen orde.

Errealitate horren aurrean, eta azken hilabeteotan hezkuntzaren edo lan-arloaren moduko gizarte-esparruek, agerraldi pandemikoei dagokienez, hartu duten protagonismoaren aurrean, euskal ostalaritzak presakotzat jotzen du zuzenean inplikaturik dauden sailtako arduradunekin bilera bat egitea. Bilera horretan, egoera orokorra baloratuko da eta egungo osasun-egoera hobetzeko zein neurri ezarri behar diren zehaztuko da, jarduera ekonomikoari ahalik eta kalte gutxien eginez.

Elkarte sinatzaileek uko egiten diote, une honetan, Eusko Jaurlaritzak joan den larunbatean, maiatzaren 8an argitaratutako azken dekretuaren aurkako ekintza judizialei.

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



- Iritzia
- Postontzia
- Komunitatea

Informazioa emateko karpa ipiniko dute asteburu honetan

Zein haur parke estali eta Udal aurrekontuko hainbat partiden inguruan erabaki ahal izango dute urnietarrek

Erredakzioa URNIETA

Iaz koronabirusak galerazi bazuen ere, prozedura ezaguna da urnietarrentzat. Egun hauetan abian jarritakoa aurreko urteetan egindakoa sakontzea baita. Udalak herritarren proposame-

nak jaso nahi ditu, aurrekontu parte-hartzaileak osatzeko. Eta, berrikuntza modura, zein parke estali behar den erabakitzeke herritarrengana jo du.

Asteburu honetan informazio karpa ibiltaria ipiniko dute.

Ostiralean, goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:30era, Etxeberri plazan.

Eta arratsaldeko 17:00etatik iluntzeko 20:00etara, Guria tabernaren inguruan.

Larunbatean, berriz, goizeko 10:00etatik arratsaldeko 14:30era San Juan plazan.

Proposamen zehatzak landu dituenarentzat, udalerrian zehar jarritako buzoietan aurkez ditzake. Eta baita internet bidez ere, webgunean edota Urnieta APP aplikazioan sartuta.



Jorge Segurado Urnieta alkatea eta Mikel Pagola zinegotzia. UDALA

"Urnietarrak zein AEKko ikasleak elkartu nahi ditugu"

NEREA ZUBIMENDI URNIETAKO AEK-KO IRAKASLEA

Mendiaz zein euskaraz gozatzeko hitzordua antolatu du Urnieta AEK-k, Zanpatuz elkartarekin elkarlanean. Hala, Mulisko Gainera egingo dute irteera, ostiral arratsaldean

Erredakzioa ANDOAIN

Hitzordu berezia prestatu duzue. Zein da asmoa?

Mendi-irteera antolatu dugu Urnieta Zanpatuz mendi-elkartarekin batera. Ostiralean, arratsaldeko 17:00etan, Besabin elkartzea eta irteera txiki bat egitea da asmoa, hain zuzen ere, Onddi mendiaren magaleko Mulisko Gainera. Historiaurreko hilerria da hori, eta Zanpatuz elkartekoek azalduko dizkigute lekuaren nondik norakoak.

Nori zuzendua dago?

Euskaltegiko ikasleei zein interesea duten herritarrei. Euskara maila nahiko altua izango dela pentsatzen dut, baina ulermenerako zailtasun handiagoa duten kideei azalpen xumeagoa eman gozaie, bertaratzen den orok argi uler ditzan argibideak. Gurean jada jendeak eman du izena, besteak beste, A0 mailakoek, B1 taldekoek, irakasleek eta gertuko jendeak. Baina herritarrek ere etortzeko aukera dute. Izen-ematea irekita dago oraindik: 662 33 87 47 telefonora idatzita edo urnieta@ae.k.eus helbide elektronikota mezua bidalita. **Mendiaz gozatzeko eta euskaraz mintzatzeko aukera paregabea.** Bai, eta, gehienbat, gure herrian. Urnietarrak zein AEK-ko ikasleak



Zanpatuz, artxiboko irudian. AIURRI

elkartu nahi ditugu, herrian zerbait antolatu. Egia da aurten mugatuta gaudela, egoera epidemiologikoa dela eta; beraz, ezin ditugu klasez kanpoko jardura asko egin. Ondorioz, gure ikasleak ere ez dira elkar ezagutzen, ez direlako ikusten euskaltegian. Hori horrela, horrelako ekintzekin jendea ezagu-

tzeko aukera dago, euskal giroan. Gainera, gure zenbait ikasleek ez dute Mulisko Gainera ezagutzen; aukera polita da ostiralekoa, hortaz.

Aberasgarria da zuentzat herriko elkarte batekin elkarlanean hitzordu bat antolatzea, ezta?

Bai. Izugarri eskertzen da, edozein irteera antolatzeko prestutasuna erakutsi digute. Aurrera begira, interesgarria litzateke horrelako hitzorduak antolatzeko aukera izatea, elkarlanean. Zanpatuz elkarte euskalduna da, eta aberasgarria da bertako kideek ikasleei beraien jakintza euskaraz partekatzea.

Zergatik da garrantzitsua horrelako irteerak antolatzea?

Saretzeko premia du Urnieta AEK-k, alegia, herrian garrantzi handiagoa izateko beharra. Horrela, eragileekin, baita hainbat elkarterekin ere ekintzak prestatzea aberasgarria izango da ikasleentzat, herritarrentzat eta guretzat.

"ZANPATUZ ELKARTEKOEK AZALDUKO DIZKIGUTE TOKIAREN NONDIK NORAKOAK"

"SARETZKO PREMIA DU URNIETAKO AEK EUSKALTEGIAK, HERRIAN GARRANTZI HANDIAGOA IZATEKO"

Garapenerako egitasmoak diruz laguntzeko hitzarmena

Euskal Fondoa eta Udalaren akordioarekin, egitasmoak sustatuko dira Kuban, Saharan eta Guatemalan

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalaren eta Euskal Fondoa elkartaren arteko hitzarmenari esker, garapenerako lankidetzari lotutako programak garatuko dira Kuban, Saharan eta Guatemalan.

Ondoko hauek dira Urnieta Udala 2021. urtean lagunduko dituen proiektuak eta bakoitzera bideratuko dituen diru kantitateak:

- Kuba: Habanako erdigune historikoan historialarien bulegoak adineko pertsonen arretarako duen programa sendotzea. 5.471 euro.
- Sahara: Garraio-azpiegitura laguntzea: Smarako gasolindegia handitzea. 5.471 euro.
- Guatemala: Artikulazio instituzionala eta sare sozialak, indarkeriarik gabe bizitzeko hirugarren fasea. 5.471 euro.



Nazioarteko egitasmoa da. EUSKALFONDOA

KUBARA, SAHARARA ETA GUATEMALARA BIDERATUKO DA URNIETATIK EMANDAKO LAGUNTZA



Urnietako
udala

"Bezera ez da 19:30ean afaltzera etorriko"

URRU TXINDOKI TABERNA

Ostalaritza-guneei gaueko 22:00ak arte irekitzeko aukera zabaldu zaie, araudi berriaren arabera. Afariak ematen dituen Txindoki tabernarentzat ez da nahikoa

Erredakzioa ANDOAIN

Kale Nagusiko tabernak 1957an ireki zituen ateak. Jabego ezberdinarekin izan bada ere, ibilbide oparoa izan du Andoain.

Alarma egoera kenduta afariak emateko aukera zabaldu zaizue. Normaltasunera iristeko beste urrats bat al da?

Pauso txiki-txikia da, baina ez da erabakiorra guretzat. Euskadin bizi gara eta ez da inor iluntzeko 19:30ean afaltzera etorriko. Frantzian egingo lukete, hemen ez. Beraz, gure kasuan gaueko 22:00etako mugarekin afariak emateko oso aukera murrizta dugu.

Zuen negozioan afariak giltzarri dira. Pentsatzen dugu eragin izugarria izan duela zuengan orain artekoak? Ikaragarria. Zazpi lagun geunden lanean, eta orain lau besterik ez gaude lanean. Afariei esker egiten genuen aurrera. Zorionez, bezeroak joera aldatu du eta bazkarirako joera areagotu egin da. Alabaina afaririk gabe, jai dugu. Aforoa murriztuta duzue taberna barruan. Arazo handia da hori zuentzat?

Noski, aforoa erdira murriztuta... izenak berak dio. Aforoa erdira murriztuta, eta barran ezin dugu zerbitzurik eskaini. Arazoak biderkatu egiten zaizkigu.

Lauro edo sei mahaia zenbate-raino eragiten du zuena bezalako negozio txikietan?

Aurreko galderari lotuta dago. Eragin handia du gure negozioan. Mahaia bost edo sei pertsonekin osatuz gero, aukera handitzen zaigu. Gure kalkuluen arabera, lau mahaiekin, bezeroen %60a galtzen ari gara.

Ostalaritza elkarteak eta tabernari askok oinarritzko arauak betearazteko prozedura betetzen dute. Segurua dela, alegia.

Gaurko egunez, ulertzen dut nire kolega gehienek araudia betetzen dutela. Ia ziur nago. Beraz, ostalaritza-negozio batean egotea kalean edaten baino se-



Urru tabernaria, Txindoki tabernako barran. AIURRI

"ZAZPI LAGUNEN LANTALDEA GENUEN, ETA ORAIN LAU BESTERIK EZ GAUDE LANEAN"

guruagoa da. Taberna batean neurriak betearazten ditugu, higiene eta segurtasunaren aldetik. Segurtasun osoa eskaintzen dugu. Klean, 10-12 lagun elkar-tu daitezke edozein txokotan.

Zuen lantaldearengan eragina izan du aldaketa berriak?

Araudi berriarekin afariak emateko aukera eskasa dugu. Turistak ez ditugu asko, eta araudi berriarekin Andoaindik mugitzeko aukera ematen zaio herri-tarrari. Lehen bezala gaude, aldaketa bakarrarekin. Negozioa gaueko 22:00tan itxi genezakeela. Gauzak horrela, zaila da jendea hain goiz afaltzen hastea. Erabateko normaltasuna nahi dugu, eta ez indarrean jarri dituzten aldaketa txiki horiek.



Andoaingo langile bat hil da Adunan, lanean ari zenean

LAB sindikatuaren arabera, ezbeharra maiatzaren 10ean izan zen. ELAk ere gertaera salatu du

Erredakzioa ANDOAIN

Sindikatuak emandako datuen arabera, Adunako Kelsen enpresako langilea lanean ari zenean bihotzekoak jota hil zen. Hildako langilea Jesus Ignacio Rodriguez Gaminde 59 urteko andoaindarra da.

LAB sindikatua izan zen ezbeharren berri ematen lehena, eta langileek bizi duten prekarietatea nabarmendu zuen. Antzeko irakurketa egin zuen ELA sindikatuak.

Bihotzekoak jota, lanean ari zenean

ELAk adierazpena argitara eman zuen, asteartean: "Badirudi modu honetako lan-istripu hilgarriek (hala nola, ictusak, bihotzekoak etabar) ez dutela lanarekin zerikusirik; aldiz, azken urteetako datuei erreparatu badiugu ikusiko dugu 2020an lan-istripu baten ondorioz hil ziren langileen %25, istripu ez traumatiko baten eraginez zendu zirela. Aurtengo datuei erreparatu gero, lanean zendu diren 23 langilek bost zendu dira istripu ez traumatiko baten eraginez.

Datuak oso argigarriak direla iruditzen zaigu eta hauen atzean



LABen afitxa. LAB

dauden benetako arrazoiak instituzioek zein patronalek sakon aztertu beharko lituzketela uste dugu. Estatistika hauen atzean egon litezkeen arrazoiak zeintzuk izan daitezkeen ez daukagu zantzirik: lan-erritmo jasanezinak, lan baldintza geroz eta kaxkarragoak, lan-karga izugarriak, estresa, eta abar".

Sindikatuaren arabera, egoera hau aldarazteko "borondate politikoa eta enpresarien behinbetiko konpromisoa besterik ez dira behar".



AIURRI

Jolas parke berria Karrikan

Datozen asteetan Aitzondo plazako jolasparkea berrituko du Udalak. Mari Jose Izagirik alkate-ordeak adierazi duenez, "diseinu inklusibo eta integratzailea edukiko du parkeak". Era berean, auzunean WC publikoak ipiniko dute. Bi berrikuntza horien aurrekontua 120.000 eurokoa izango dela aurreratu du Andoaingo Udalak.



LSB

Huitziri eta Urmenetari omenaldia

Ikasturtea amaierara iristen ari den honetan, La Salle Berrozpe ikastetxeak Juan Luis Urmeneta eta Xabier Huitzi irakasleak omentzeko aukera baliatu du: "Beste zereginetara denbora eskaintzeko garaia heldu zaie, baina ikasle eta irakasleek ezin genuen gure eskerrona adierazi gabe geratu. Luxu bat izan da zuen ikasle edo lankide izatea urte hauetan guztietan"



IREKIA

Santa Krutz jaietako saridunak

Aurtengo balkoi apainketa lehiaketako bi saridunen berri eman du Santa Krutz Jai Batzordeak. Irabazlea goiko argazkian ageri da, sagardo txapelketan oinarritutako balkoia apaindu zuena. Beste argazkian pregoilarien unea irudikatu zuten. Jaiak ospatu ez badira ere, hainbat leiho eta balkoi apaintzeko aukera baliatu zuten auzotarrek.



IREKIA

Astez asteko intzidentzia

ANDOAIN

- **Maiatzak 5-11:**
15 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 246,86.
- **Apirilak 28-Maiatzak 4:**
22 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 326,93.
- **Apirilak 21-27:**
27 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 433,68.
- **Apirilak 14-20:**
38 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 447,02.
- **Apirilak 07-13:**
29 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 373,63.
- **Martxoak 31-Apirilak 06:**
30 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 340,27.
- **Martxoak 24-30:**
21 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 233,52.

URNIETA

- **Maiatzak 5-11:**
7 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 225,48.
- **Apirilak 28-Maiatzak 4:**
7 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 402,64.
- **Apirilak 21-27:**
18 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 595,91.
- **Apirilak 14-20:**
19 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 660,33.
- **Apirilak 07-13:**
22 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 402,64.
- **Martxoak 31-Apirilak 06:**
3 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 96,63.
- **Martxoak 24-30:**
3 kasu positibo.
Intzidentzia tasa: 128,85.



AIURRI

650 tontor ekimena

Sarek eta Etxeratak euskal presoek eskubideen aldeko ekimena antolatu zuten, Euskal Herriko mendietan barrena. Urnietarrak Onddira igo ziren, eta andoaindarrak Onddi, Zaburu eta Aizkorrikora. Andoainek, gainera, laugarren talde bat abiatu zen Bekoplazatik Goiburura. Bi deialdietan jende askok parte hartu zuen.



ANDOAINGO SARE



ANDOAINGO SARE



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- **Osasun Sailak zabalduetako datuak eguerdiro, eskualdera ekarrita.**
- **Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.**
- **Atal bereziak: BIDEO-PILULAK | DATUAK EGUNEZ EGUN**

www.aiurri.eus



“Gobernuak hartutako neurriak eta erabakiak, sarritan, ez dira behar bezala azaldu, ez eta berauek hartzearen edo berrestearren arrazoiak edota espero zitezkeen ondorioak ere”. YOUTUBE

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Orain hamabost bat hilabete hasi zen guztia. Denbora laburrean, hankaz gora ipini zuen egunerokoa koronabirusak, eta, harrezkero, nork bere erara egin dio aurre pandemiak utzitako albo-kalteei, ez baitu inork birusaren hatzaparretatik ihes egiterik izan. Kaleetan ez ezik, komunikabideetan ere puri-purian egon da gaia, egun, koronabirusak hartu duela agenda mediatikoa, alegia. Albistegiek zein titularrek gauza bera dute hizpide egunez egun: pandemia. Bada, herritarren bizitza zeharkatu arren, ezjakintasuna izan da nagusi, hanka-sartzeak egon dira, baita beldurra ere.

Hala, hutsune horri erantzuteko helburuz, hainbat esparrutako 44 profesional elkartu ziren orain hilabete batzuk: beharrezkoa ikusten zuten egoera konplexuari ebidentzian oinarritutako begirada kritikoz erreparatzea. Nor bere esparrutik abiatuta, besteak beste, medikuen, irakasleen, ikertzaileen, eta abokatuen hitzek osatzen dute proiektua, “Covid-19aren Liburu Zuria”. Honako esparru hauek ontzen dute proiektuaren muina: osasuna, ekonomia, arlo soziala eta hezkuntza.

“Gardentasun eza”, dio Oier Ateka medikuak eta liburuaren egileetako batek, “geure esku informazioa ipintzea faltan sentitu dugu”. Ondorioz, jakintza-alor anitzetatik eutsi diote afe-rari, eta “ahalik eta begirada

Pandemiaren irakurketa kolektiboa

“Covid-19aren Liburu Zuria” osatu dute Euskal Herriko 44 adituk. Pandemiak gizarteko hainbat sektoretan izandako eragina aztertzea dute helburu, baita egoerari aurre egiteko proposamenak egitea ere

independenteenetik” jorratu dute. Ugo Mayor ikerlariaren esanetan, “modu koralean” egin dute lan txostena idazteko, “adar bakoitza ez baita independienteki garatu”. Nahiz eta liburuan esparru bakoitzak bere atala izan, egitasmoaren egileek nabarmendu dute garrantzitsua dela horien interdependentzia ulertzea, pertsonaren integrita-

175 PROPOSAMEN BILTZEN DITU "COVID-19AREN LIBURU ZURIA" LIBURUAK

te fisikoa zein emozionala lortzeko bidean.

Hausnarketa kolektiboa egitea. Horixe du helburu lanak; datuetatik harago jotzea begiradak, hain zuzen ere. Pandemia testuinguruan kokatu nahi izan dute lanaren bidez, testuinguru sozialean, kulturean, politikoa eta ekonomikoan. Birusaren ondorioen gainean egin dute hausnarketa, baita aurrera begirako erronkez eztabaidatu ere: orotara, 175 proposamen biltzen ditu liburuak, guztiek egoerari ahalik eta erantzunik eraginkorrena ematea abiapuntu.

“Konplexutasun handiko egoera honi aurre egin nahi badiogu”, gehitu du Mayorrek, “zertan

egin dugun kale azertu behar dugu, akatsetatik ikasteko”. Izan ere, eztabaidaren eta elkarriketa sozialearen premian sinesten dute egileek, eta hori dela eta egin dute txostena, pandemiaren gorabeherak orain arte ez bezalako eran mahaigaineratzeko.

Osasuna

Txosteneko hitzak gogora ekarrita, Euskal Autonomia Erki-

XEDEA HAUSNARKETA KOLEKTIBOA EGITEA DA; DATUETATIK HARAGO JOTZEA BEGIRADAK

degoan egindako ikerketen arabera, gora egin dute egungo pandemiak biztanlerian ekarri duen estresak, hersturak eta depresioak. Ildo beretik, liburuaren egileek adierazi dute osasun-sistemaren antolaketan gabezia handiak egon direla; are gehiago, koronabirusaren aurretik zeuden makina bat arazo elikatu ditu egoerak. Tartean, baliabide-teknikoen egoera eskasa azaleratu dute liburuan: “Erantzukizuna eremu publikoak hartu behar izan du, eremu pribatutik laguntza oso eskasa jaso baita”.

Arlo soziala

Liburuak aitortu du esparru juridikoa pandemiari aurre egiteko behar bezela prestatuta ez zegoela. Halaber, garrantzitsutzat jo dute egileek agintarien alde-tik informazio zehatza ematea, herritarren beldurak uxatzeko eta konfiantza transmititzeko: “Gobernuak hartutako neurriak eta erabakiak, sarritan, ez dira behar bezala azaldu, ez eta berauek hartzearen edo berrestearren arrazoiak edota espero zitezkeen ondorioak ere”.

Hezkuntza

Adituen esanetan, hezkuntza-sistemaren gabeziak areagotu ditu pandemiak. Eskolen itxierak, gainera, sozializazio murrizta ekarri zuen, eta horrek eragin zuzena izan zuen ikasleen egoera psiko-emozionalean: urduria-go (%70,14), tristeago (%55) edota maizago haserretu dira ikasleak (%74,66). Joera bera ikusi da irakasleei dagokionez. Bestalde, unibertsitateko ikasketei erreparatuz gero, klaseak etxetik jarraitzeko ahalegina egin arren, ez dira guztiz egokitu ikasleen zein irakasleen premietara: “Irakaskuntza-metodologiek in-askotan ez datoz bat”.

Ekonomia

Ezusteko egoera bati erantzun behar izan diote enpresek, eta horrek errentagarritasunaren beherakada zein finantza-tentsio handiak eragiten dizkie. Txostenaren esanetan, ostalaritza, txikizkako merkataritza eta turismoa dira kaltetuenak, baita mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko sektorea ere: “Pandemia iristeak areagotu egin du jipoitutako gizarte-sektoreen desberdintasuna, eta biztanlerik ahulenei sufritu dute gehien”.

Arte jarduera ezberdinak Bastero Kulturgunean

Lau euskal artista piktorikoen artelanak ikusgai daude Basteron. Hauexek dira: Gonzalo Etxebarria (Bilbo, 1954), Patxi Laskarai (Lekunberri, Nafarroa Behera, 1967), Oaia Peruarena (Bera, 1972) eta, Iker Valle (Andoain, 1976)



Lau artistak, Bastero Kulturgunean. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Etxebarriaren espresionismoa, Peruarenaren abstrakzioa, Laskaraiaren Iratiko basoko argazki ilunak eta Valleren naturaren margolan interpretatiboak eta brontzezko eskulturak biltzen dira Espazio Kuttunak izenburuko erakusketan.

Nahiz eta nork bere ekarpen plastikoa oso modu pertsonalean garatu, beraien lanetan naturaren presentzia (itsasoa, mendia, basoa...) azaleratzen da ugari; argi eta ilunaren arteko elkarriketak ikusi daitezke horietan.

Valle artista andoaindarrak erakusketa kolektiboak non duen jatorria azaldu du: “2011n eza-gutu genuen elkar. Pascale de Gilbert arte komisarioa Parisetik Mendikota herrira (Zuberoa) heldu zen, bertan arte galeria irekitzeko asmoz. Euskal Herriko zazpi herrialdeetako hainbat arte-sortzaile bildu zituen bertan, eta herrian antolatu zen jai ederrean egin genuen topo lauok, hain zuzen. Orduan hasi ginen adiskidetzen, eta arlo artistikoan

bakoitzak egiten zuenaren berri edukitzen. Geroztik, zenbait erakusketetan elkarlanean jardun izan dugu. Nolanahi ere, aurreneko aldia da erakusketa batek lauok batzen gaituela.”.

Iker Valle

Donostian bizi den artista autodidakta margo nahiz eskultura mordo batekin heldu da Basterora, Azken urteetan lan piktorikoez

gain, erliebeak eta eskultura jorratu ditu; azken arte diziplinari horri dagokionez, Hernaniko Ave Maria Parkean eskultura ipintzea izan da bere azken ekimen publikoetako bat. “Abstraktuak dira nire lanak, bilaketa edo ikerketa prozesua pertsonalaren emaitza direla esango nuke; horretara eramanez nire bilakaera pertsonalak, sorkuntza mundu honetan. Basteron, hiru lan sorta

edo seriatu aurkezten ditut. Lehenbizikoak zuri beltzezko margoak dira; horietako batzuk pigmentu naturalak arroza paperaren gainean dira, eta marmola hutsean egindakoak besteak. Bigarren seriea naturarekiko loturatik dator; zuri beltzezkoak dira lanak. Neguan, Iratiko basoko zuhaitzen bertikaltasunak zeruaren zuria-ekin egiten duten kontrastea oinarri hartuta nik egindako interpretaziotik sortu dira. Azkenik, eskulturaren arloan, “Itasoaren idatzia” izenburua dararmaten brontzezko piezak jarri ditut. Horiekin, gorazarre egin nahi izan diot euskal kostaldea zoragarriari; Biarritz, Angelu, Zumaia... eta beste zenbait tokietako harkaitzak suma daitezke horietan”.

Gonzalo Etxebarria

Espresionismoaren margolaria da Gonzalo Etxebarria. Biribiltasuna irudikatzen dute bilbotarraren zenbait margoek, akriliko eta pigmentuarekin egindakoak “esperimentazioa egin dut koloreekin, joko biribilekin konposaketa desberdinak osatuz, eta horiekin lan sorta erakusten dut. Bigarren margo sorta, berriz, karratua da, akuarelarekin egindakoa; hor, mundu mitologikoa eta erreala nahastea izan da nire intentzioa. Halaber, obraren beste zati batean, Zuberoako Santa Grazi edo Barkoxeko herrien paisajeetan barne minez torturatutako gizakia sumatzen da”.

Patxi Laskarai

Zuberoako natura guneeetan eta Iratiko basoan egindako argazkiak jarri ditu ikusgai Lekunberriko argazkilariak, Basteron. “Aski ilunak dira; eguzkiaren argitasuna baino gehiago, lurrraren edertasuna du azaldu

nahi izan dut. Gaua ilargi betean denean, gauerdia aldera Iratira joaten naiz maiz”.


Oaia Peruarena

Abstrakzio aldera jotzen du betararrak, margolaritzan. “Koloreak garrantzi handia du nire sormenean. Kolorea, trazua, margoaren dentsitatea, loditasuna eta gorputza... Arau jakin askorik gabe margotzea dut gogoko, hori da gehien asebetetzen nauena, margoa askatasunaren espazioa baita. Natura izaten da nire lan aunitzen abiapuntua, baina ez naturarekin zerbait adierazteko gogoz, baizik eta inspirazioa emateaz gain bizitza ematen didalako”.

Erakusketa ikusteko gomendioa

Oaia Peruarenaren aburuz, artelanak kontenplatzerakoan ez genuke obsesionatu behar horiek “ulertzeko”. “Nork bere sententzioak, bizipenak, munduaren ikuskera... dauzka, eta hortik abiatuta, obraren batek zerbait biziarazi eta sentiarazi badizu, bada, primeran, eta bestela ere ez du zertan konplejurik eragin behar. Beharbada egileak zerbait zehatza transmititu nahi izan dio ikusleari, eta honek, bien bitartean, guztiz kontrakoa jaso du. Basteroko erakusketa gela herrigunean kokatzen da, eta andoaindarrei sartu-irten bat egin dezaten gomendatzen diet. Proba dezatela, eta ea sentimendu berezirik pizten dieten gure sorkuntzek”.

**BISITALDI GIDATUAK
ANTOLATU DITUZTE
MAIATZAREN
15ERAKO ETA 22RAKO,
12:00TAN HASITA**



Valle. AIURRI



Laskarai. AIURRI



Etxebarria. AIURRI



Peruarena. AIURRI



Erraldoi eta buruhandien konpartsa. AIURRI

Kultur arloko dirulaguntzak eskatzeko prozedura martxan

Andoaingo kultur elkarteek datorren ekainaren 4ra bitarteko epea izango dute

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Udaleko Hezkuntza eta Kultura Sailak, Andoaingo kultur elkartei laguntza eskaraz aurkezteko deialdia zabaldu die. Txitxu Ruiz zinegotziak zuzentzen duen sailak 90.000 euroko partida bideratuko du, dirulaguntza lerro horretarako. Kultur sailetik adierazi dutenez, partida hori "herrian erreferente diren edo kultura sustatzera bideratuta dauden ekimen eta egitarauak antolatzeke" izango da.

Dirulaguntzen imprimakiak eta oinarriak Andoaingo udaleko Andoain.eus webgunean daude eskuragarri. Edozein argibide edo laguntza behar izanez gero, Basteroko Kulturguneko harrerara deitzeko gonbitea luzatu dute.

Dirulaguntzak eskatzeko epea datorren ekainaren 4an amaituko da.

Laguntza aurkezteko moduak

Bastero Kulturguneko harreran edo Ataria arreta zerbitzuan aurkez daitezke proposamenak. Baita internet bidez ere.

Aurrez aurre:

- Ataria: 09:00-13:00. Derrigorrez alde aurretik hitzordua hartu behar da (943 300 830).
- Bastero: 10:30-13:00 / 16:30-19:30.

Internet bidez:

- www.andoain.eus webgunea.



Iazko ekimena. AIURRI

Erakusketa Andoaingo elizetako arkupeetan

Kulturartekotasuna ardatz duen "Lamiak eta llloronak" izeneko, maiatzaren 14tik 28ra

Erredakzioa ANDOAIN

"Lamiak eta Llloronak" Ongi Etorri Eskolara proiektuaren ekimen bat da, kulturartekotasuna ardatz duena. Iaz abiatu zen Andoain, eta ekitaldiari amaiera emateko Joakin Larreta etorbidean ikusgai dagoen murala margotu zuten. Aurten goan bigarren edizioa ospatuko da, maiatzaren 14tik 28ra zabalduko dena. Erakusketa ibiltaria da, udalerriko elizetako arkupeetan ikusgai izango dena. Jarduera honek udalerrri margolarien eta jatorri desberdinetako familien artean kulturen arteko loturak ezartzea du helburu.



Gazte Lokalean egin zen 2019ko sari banaketa ekitaldia. AIURRI

Erreportari Gaztea Saria lehiaketa martxan dago

Eskualdeko ikasleek parte har dezakete Andoaingo Udalak antolatzen duen lehiaketan

Erredakzioa ANDOAIN

Andoain euskarazko kazetari-tzari oso lotuta dago, euskal kazetaritzaren izen handien artean nabarmen baitira Martin Ugalde eta Rikardo Arregi. Biak ala biak, bakoitza bere garaian, euskarazko kazetaritzaren alde mugarri izan diren egitasmoetan murgildu ziren. Azken 23 urtetan, euskarazko kazetaritza sustatzeko, Erreportari Gaztea izeneko lehiaketa antolatzen dabil Andoaingo Udala. Xedea honakoa da: "Andoaingo eta inguruko herrietako gazteen artean komunikazio idatzia euskaraz zuzen ez ezik txukun eta egoki ere egiteko gaitasuna eta kazetaritza-zale-tasuna bultzatzea". Lehiaketan parte har dezakete Beterri-Buruntza eta Aiztondo aldeko ikasleek, 2000 eta 2003 urteen artean jaiotakoek. Erreportajearen egilea pertsona bakarra edota

taldea izan daiteke. Erreportajea hiru orrialdekoa edo 6.000 karakterekoa aurkeztu behar da. Saria, gainera, potoloa da: 360 euro eta Xabier Laka eskultoreak egindako eskultura.

Erreportarigazteasaria. wordpress.com

Lehiaketaren xehetasun guztiak erreportarigazteasaria.wordpress.com blogean aurki daitezke. Lan bakoitzaren kopia bat paperean eta beste bat PDF formatuan entregatu beharko dira, maiatzaren 25era bitartean Andoaingo Udaletxean, Ataria arreta zerbitzuan. Ekainean emango da ezagutzera epaimahaiaren erabakia, eta saria ekimen berezi baten bidez emateko asmoa dute.

Kazetaritzan adituak diren pertsonak osatuko dute epaimahai, eta bere erabakia aple-laezina izango da.

Antzerki emanaldiak, bertsoa eta musika Urnietan

Maiatzean eta ekainean zehar kultur ekitaldi sorta antolatu du Urnietako Udalak

Erredakzioa URNIETA

Antzerkia, bertsoa, musika... kultur eskaintza zabala antolatu du Urnietako Udalak, datozen asteetarako. Kultur ekintza horietan guztietan indarrean dagoen protokoloa jarraituko dela na-

barmendu du Udalak. David Rosco zinegotziaren ustez, "ezinbestekoa da erantzukizunez eta arduraz jokatzeko, eta neurri guztiak betearazteko ekintzak normaltasunez eta segurtasunez garatzeko".

"Dardara", Berri Txarrak taldeari buruzko dokumentala eta gero, hauexek dira hurrengo kultur ekitaldiak: "Por hacer un favor" kale antzerkia San Juan plazan, maiatzaren 23an; eskolarteko bertso txapelketaren saioa Saroben, maiatzaren 28an; "Adi, grabatzen, ekin!" haur ikuskizuna Saroben, maiatzaren 30ean; "La mudanza" antzez-lana Saroben, ekainaren 6an eta Amak taldearen kontzertua, ekainaren 12an. Sarrerak internet bidez eros daitezke.



David Rosco Sustapeneko zinegotzia eta Luxia Iriondo kultur teknikaria. UDALA



BEÑAT FERNANDEZ

Los Arcos herrian lehiatuko da

MOTORRA Aurreko lasterketetan bezalaxe, podiuma lortu nahi du Beñat Fernandez "Pelontxu" gazte andoaindarrak. Espainiako Superbike Txapelketako lasterketa garrantzitsuan arituko da, Nafarroako Los Arcos herrian. Austin Racing VHC Liqui Moly taldearekin lehiatuko da. Motorzaleak interes handiarekin jarraitzen ari dira andoaindarraren ibilbidea.



EUSKALDUNA

Jubenil mailakoen garaipena

FUTBOLA Jubenilen Ohorezko Mailako sei partida jokatu dira, eta Euskaldunak lehen garaipena eskuratu zuen aurreko asteburuan. Astigarragako Mundarro garaitu zuen, 3-1eko emaitzarekin. Asteburu honetan Hernaniren aurka lehiatuko dira. Bigarren garaipenaren bila abiatuko dira.



Izaro Zuriarrain. ANDOAINGO

Gipuzkoako eta Arabako errepideetan, lehian

TXIRRINDULARITZA

Andoaingo Txirrindulari Eskolako gazteek ez diote lehiatzeari utzi

Erredakzioa ANDOAIN Izurritea dela eta, Gipuzkoan egiten diren lasterketak nabarmen murriztu dira. Horrexegatik, Andoaingo kadete mutilak Araba aldean lehiatu ziren.

SEGURA, 21.05.09

Kadete neskak, sailkapena:

1. Izaro Oliveira.
2. Nahia Arana.
3. Oneka Sanchez.
9. Izaro Zuriarrain (Andoaingo).
18. Intza Navarro (Andoaingo).

ARANA, 21.05.08

Kadete mutilak, sailkapena:

1. Gari Ugarte (Zatika).
2. Aimar Alarcia (Donosti B).
3. Tamirat Navarro (Luyano).
17. Iker Ugartemendia (Andoain).
45. Ganix Ormazabal (Andoain).
57. Ekhi Arrieta (Andoain).

LAZKAO, 21.05.08

Jubenil mutilak, sailkapena:

1. Unai Zubeldia (Limousin).
2. H. Etxeberria (Buruntzazpi).
3. Hugo Aznar (Quesos Albeniz).
48. Xabat Alonso (Andoaingo).



Andoaingo pala taldea. AIURRI

Andoain finalaurrekoetara sailkatu da, Herriartekoan

PALA Donostiaren aurka jokatu dute andoaindarrek Altxa pilotalekuan

Erredakzioa

ANDOAIN Larruzko paletan Ibon Altunak eta Koldo Poncek jokatu zuten. Pasa den astean bezalaxe, norgehiagoka bikaina jokatu zuten eta aurkariak guztiz menperatu zituzten (21-35). Hasieratik gehiago izan ziren andoaindarrak eta horrela erakutsi zuten partida osoan zehar. Arrate frontoiko luzera ondo baliatu zuten Altunak eta Poncek.

Bigarren partidari, berriz, ezin izan zuten garaipena eskuratu Aritz Rekaldek eta Xabi Alkortak (40-35). Oro har, partida berdindua izan zen, baina aurkariak azken txanpan gehiago

izan ziren. Hala ere, final aurrekoetara igaro dira Andoaingo pilotariak, Mateo Ponceren gidaritzapean eta Ibai Iradi ordeko gisa.

Final erdietan Donostiaren aurka lehiatu beharko dira Altxa pilotalekuan. Lan handia egin beharko dute garaipena eskuratu nahi badute.

DONOSTIARRREN AURKA LAN HANDIA EGIN BEHARKO DUTE, FINALERAKO SAILKATU NAHI BADUTE

Giroaren jarraipena, egunero Aiurri.eus webgunean

TXIRRINDULARITZA Lasterketaren kronika eta gakoak Andoni Urbistondo kirol kazetariaren eskutik

Erredakzioa

URNIETA Txirrinduzale amorratuentzat hiru asteko lasterketa ikusgarriena da. Aurtengoan, lasterketa

Aiurri bidez jarraitzeko aukera izango da. Mikel Landa eta Pello Bilbao lasterketako animatzaile izateko bidean dira, gainera.



ITALIAKO GIROA

AIURRI.EUS | @aiurri





Imanol Ansa urnietarra. AIURRI

Ansak finalaurrekoetarako txartela eskuratu du

ERREMONTEA Matematikoki finalaurrekoetarako sailkatu da asteleheneko partida irabazi ostean (30-23)

Erredakzioa ANDOAIN

Ansak eta Labakak lau partida irabazi dituzte eta 16 punturekin finalaurrekoetarako sailkatu dira. Txapelketa biribila jokatzeko ari dira eta partidak nagusitasun osoz irabazi dituzte. Sasoi onean daudela erakusten ari dira eta bikote bezala bikain ulertzen dute elkar.

Tartean, sailkatzeko aukera askorekin daude Urriza eta Zaldia (12 puntu), Segurola eta Larrañaga (10 puntu) eta Goikoetxea-Zaldia bikotea (9 puntu). Goikoetxea urnietarrak lan handia egin beharko du hurrengo partidaren final erdietara igarotzeko.

rotzeko aukerak izan nahi baditu; izan ere, astelehenean ezin izan zuten garaipena eskuratu (27-30).

Bestalde, Juanenea-Zubiri eta Etxarri-Barrenetxea bikoteek ia ezinezkoa dute final erdietara igarotzea; izan ere, 4 eta 5 puntu soilik lortu dituzte hurrenez hurren.

Ligaxka amaitzeko bi jardunaldiren faltan, matematikoki bikote bat sailkatuta dago eta atzetik datozenek nahiko ziurtatua dute sailkapena. Hala ere, Sagardoaren Txapelketan gauza asko alda daitezke hurrengo bi jardunaldietan.



UKE

Garaipena Oiartzunen

FUTBOLA Emakumezkoen Ohorezko Erregional mailan, urnietarrek garaipena eskuratu zuten Intxaurdiren aurkako partidaren. 7 jardunaldiko ligaxka jokatu, laugarren postuan sailkatu dira. 3 garaipen eskuratu dituzte, eta 2 berdinketa.



Salaberria. UKE

Urnieta Artola Harategia amildegi ertzean

ESKUBALOIA Seniorrek garaipen argia behar zuten mailari eusteko lehian aurrera jarraitzeko

Erredakzioa URNIETA

Partida zaila zen Urnietarrena, izan ere, irabazteaz gain, joaneko golen desabantaila gainditu behar zuten. Hala ere, gogo biziz irteten ziren kantxara. Amaieraino saiatu ziren arren, arratsatearrek kanporaketa eta partida hobeagoak jokatu zituzten. Gauzak horrela, jaistea edo mailari eustea beste taldeen emaitzaren arabera izango da, ez dago euren esku.

Partida eskasa jokatu zuten urnietarrek. Lehen minututik markagailuan aldea eskuratu zuten aurkariak. Defentsan ez ziren fin aritu eta erasoan akats ugari egin zituzten. Bigarren zatian, berriz, harrotasuna erakutsi eta markagailuko aldea murrizteari ekin zioten. Hala ere, partida orekatzen hasi zen arren, ezin izan zuten aurkaria mendean hartu eta 6 goleko aldearekin amaitu zen hil ala biziko partida.

Garaipenak jubeniletan


Jubenilen gizonezkoen eta emakumezkoen taldeek irabazi egin zuten. Gizonezkoak liderrak dira Hondarribiko taldearen aurka irabazi ostean (32-28). Emakumezkoen taldea ere liderra da hirugarren garaipena jarraian lortuta Tolosaren aurka (23-25).



AIURRI

Estreinaldia larunbatean

ESKU PILOTA Andoainek Tolosaren aurka jokatu du larunbatean, Amezketako Larrunari frontoian. 11:00tan hasiko dira, eta kadeteek, jubenilek eta seniorrek jokatu dute hurrenez hurren. Herriartekoan aurkari zaila izango dute aurrean, baina orain arte lortutako maila erakusten saiatuko dira kantxan.



ZUMEATARRA

Aitor Sarasola Zuiako duatloian

DUATLOIA Aitor Sarasola Zumeatarra Kirol Taldeko korrikalariak Zuiako Duatloian parte hartu zuen. Lasterketa hau ezaguna da distantzia luzea edukitzeagatik eta oso gogorra delako. Sarasolak 91 km egin zituen 3:48:57an eta 51. postuan geratu zen V1 mailan. 80. postuan sailkapen orokorrean.



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIAN BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 13

ANDOAIN Matrikulazioa

Haurrentzat eta helduentzat eskaintza zabala du Udal Musika Eskolak. Internet bidez edo Basteron bertan eman daiteke izena.

Azken eguna: Maiatzak 14.

URNIETA Deialdia

Frontoiko taberna-jatetxea alokatzeko eskaintzak aurkezteko epea ireki da. Kontratuak 10 urteko iraupena izango du, luzatzeko aukerarik gabe. Informazio gehiago: 943 00 80 00.

Azken eguna: Maiatzak 19.

ANDOAIN Erakusketa

Espazio kuttunak, lau artisten eskutik: Iker Valle, Oaia Peruarena, Patxi Laskarai, Gonzalo Etxebarria.

Maiatzak 7-Ekainak 5.

ANDOAIN Hitzaldia

"Plenipausa-menopausa. Beste begirada bat", Arremanitz erakundearen eskutik tertulia feminista.

18:30, Bastero.

OSTIRALA 14

URNIETA Parte-hartze prozesua

Udal aurrekontu parte hartzaileak azaltzeko karpa jarriko du Udalak. **10:00-14:30, Etxeberri plaza.** **17:00-20:00, Guria ondoan.**

URNIETA Irteera

Mulisko gainera irteera, Urnietako AEKk eta Zanpatuz mendi taldeak antolatuta. Izena eman beharra dago urnieta@aek.eus posta elektronikoan. **17:00, Besabi.**

ANDOAIN Antzerkia

"Sisiforen paperak" antzezlanaren eskainiko dute, Euskaldunon Egunkaria zegoen udalerrian bertan. Hots, Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean. **19:00, Bastero.**

ANDOAIN Elkarretaratzea

2020ko Greba Orokorrean isunak jaso eta identifikatu zituztenei elkartasuna adierazteko elkarretaratzea. Andoaingo Greba Komiteak antolatutako deialdia. **18:00, Goikoplaza.**



AEKk eta Zanpatuzek Mulisko Gainera antolatu dute irteera. WIKIMEDIA

URNIETA Irteera

Mulisko gainera irteera, Urnietako AEKk eta Zanpatuz mendi taldeak antolatuta. Izena eman beharra dago urnieta@aek.eus posta elektronikoan.

Maiatzak 14, ostirala. 17:00, Besabi.

LARUNBATA 15

URNIETA Parte-hartze prozesua

Udal aurrekontu parte hartzaileak azaltzeko karpa jarriko du Udalak. **10:00-14:30, San Juan plaza.**

ANDOAIN Kontzertua

Itsaso Sainz de la Maza zuzenean. Musika klasikoaren eta jazzaren arteko fusioa, Javier Gonzalez Sarmientoren lanak oinarri hartuta. **12:00, Bastero. 3 euro.**

OSTIRALA 21

URNIETA Ikasleen emanaldia

Lourdes Iriondo musika eskolako en trikixia emanaldia. **17:30, Sarobe.**

URNIETA Ikasleen emanaldia

Lourdes Iriondo musika eskolako en piano eta bibolin emanaldia. **19:15, Sarobe.**

ANDOAIN Kontzertua

Skakeitan musika taldearen eskutik. "Nola galdu denbora" diskoa aurkeztuko dute. **19:00, Bastero.**

LARUNBATA 22

ANDOAIN Ikastaroa

Txalaparta "master class"-a. Erritmo desberdinen sakonketa. Izena eman beharra dago: maizorri@gmail.com. **10:30, Olagain eskolan.**

IGANDEA 23

ANDOAIN Haur antzerkia

"Play" haur antzerki emanaldia. 2020ko Max sarietan bi sari eskuratu zituen antzezlanak. **17:00, Bastero.**


URNIETA Parte-hartze prozesua

Proposamenak herrian zehar jarritako puntu desberdinetan aurkez daitezke, baita Urnietan.eus eta APPren bidez. **Azken eguna.**

URNIETA Antzerkia

Hautagai politiko baten beldur eszenikoa gainditzeko coach batekin jarriko dira harremanetan. Honela, ikuslegoak mitin bat simulatu duen saio terapeutiko batean parte hartuko du. Umorea eta ironia nahastuta, Trapu Zaharra konpainiaren eskutik. **19:00, Sarobe.**

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Ilargi guztiak**

Lar., 15. 19:00.

Ig., 16. 19:00.

Astel., 17. 19:00.

Ikuslearen eguna

Earwig y la bruja


Lar., 15. Ig., 16. 16:30.

Crock of Gold: Bebiendo con Shane MacGowan

Lar., 22. 19:00.

Astel., 24. 19:00.

Ikuslearen eguna



SINOPSIS

**Ilargi guztiak**


Zuzendaria, gidoilaria: Igor Legarreta. **Aktoreak:** Haizea Carneros, Itziar Ituño, Josean Bengoetxea, Lier Quesada, Zorion Eguileor, Elena Uriz. **Herrialdea:** EH (2020). **Hizkuntza:** Euskaraz, gaztelaniazko azpitituluekin. **Iraupena:** 101 min.

Itziar Ituñoren berriena

Basoak eta mendi elurtuak, XIX. mendearen amaiera aldera. Nafarroako iparraldeko haranen batean karlistaldiaren azken borrokaldira ematen ari dira, lehergailu batek

umezurtz-etxe bat suntsitzen duenean. Neskatila bat baino ez da bizirik aterako. Sendatu arte zainduko duen emakume eder batek erreskatatzen du. Euskal estreinaldia.

SINOPSIS

**Earwig y la bruja**

Zuzendaria: Goro Miyazaki. **Herrialdea:** Japonia (2020). **Generoa:** Marrazki bizidunak. **Iraupena:** 83 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania.

Abentura umezurtz-etxean

Umezurtz guztiei ez zaie gustatzen St. Morwalds, baina Earwigek maite du. Neska zoriontsu bat izateko behar duen guztia dauka, ateak ireki

zitaizkion lehen egunetik. Hala ere, dena aldatzen da Bella Yaga eta Mandragora adopziozko gurasoez moztortuta sartzen direnean.



"Sisiforen paperak" antzezlaren une bat. ARRIAGA

"Sisiforen paperak" antzezlana, ostiral honetan Basteron

Euskaldunon Egunkariaren itxieran eta hari lotutako gertakizunetan oinarritutako antzezpena da

Erredakzioa ANDOAIN

Antzezlareneko pertsonaietako batek dioen gisan, egunkari bat "Gerra eta bakea ttipi baten pareko" da. Egunero iraungitzen den nobela amaiezina. Mundu kaotikoa, lau zutabe estutara ekarria. Ez da harritzekoa kazetariak bokazioaren zerbitzura egotea, lan ezinezkoa baita haie-na: idazkera zehatzaren eta gertaeren egia-aren alde setatzen dira erredakzioan, prekaritatearen eta etsipenaren kontra erlojupean borrokan. Bitartean, botereak hariak mugitzen ditu informazioa kontrolatzeko. Ikertu eta galderak egitea da kazetariaren zeregina; zer gertatuko litzateke, ordea, galdekatua dena kazetaria bera balitz?

"Egunkaria kasuan" libreki inspiratutako lan hau kazetari-tzari egindako omenaldia da, modu bidegabean itxiaz di-tuzten hedabide guztiei eskainia.

Fitxa teknikoa

Antzezlana:

- Sisiforen paperak.

Eguna:

- Maiatzak 14, ostirala. 19:00, Bastero.

Gaia:

- "Euskaldunon Egunkaria" kasuan oinarritutako antzezlana.

Egilea:

- Harkaitz Cano.

Zuzendaria:

- Fernando Bernues.

Aktoreak:

- Anjel Alkain.
- Joseba Apaolaza.
- Iñigo Azpitarte.
- Kepa Errasti.
- Mireia Gabilondo
- Aizpea Goenaga.
- Olaia Gil.



AIURRI

Mintzataldeak Andoainen, udan

AEK-k udan ere euskaraz praktikatzeko mintzataldeak osatzeko aukera emango du. Talde txikiak, seguruak eta segurtasun neurri guztiak betez. Parte hartzea doakoa da eta izena emateko azken eguna ekainak 11 izango da. Informazio gehiago, Andoaingo AEK euskaltegia. Plazaola Kaleko bigarren zenbakian dago euskaltegia. Telefonoa: 943 59 17 04.



AIURRI

Aurrematrikula egiteko garaia

Urnietako AEK euskaltegia ekimen betean ari da lanean. Ostiral honetarako mendi irteera antolatuta dute, eta Zilegi Eskolak martxan jarri dituzte. Horrez gain, 2021-2022. ikasturtean euskara ikasteko aurrematrikulazio-epea zabalik dagoela adierazi dute. Ekainaren 25a bitarte izena eman daiteke (urnieta@ae.eus / 662 338 747).

ZORION AGURRAK



ANDOAIN

Izaro Irazu Roman
Izarok maiatzaren 30ean 14 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu pillo bat ebeko guztien partetik.



ANDOAIN

Oier Agirre
Oierrek maiatzaren 11n 9 urte bete zituen. Zorionak eta muxu pillo bat ebekoengandik. Maite zaitugu.



URNIETA

PAUL-ANGEL

Maiatzaren 7an Paulek 6 urte egingo ditu. Azkenean iritsi da zure eguna! Aitona Angelen urtebetetzea berriz, maiatzaren 14an izango da eta ederki ospatuko dugu! Zorionak bioi!! Muxu bana etxekoan partez!



ANDOAIN

Zorionak Natxo
3 urte bete dituzu maiatzaren 10ean morroxko! Muxu potoloak etxekoan partez!

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantsese-ko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpreseta-rako klaseak. **693 692 823 - 665 719 827**

SALGAI

Lokal komertziala salgai Andoaingo Juan Bautista Erro kalean. 51 m², solairu bikoitza

egiteko aukera. 61.000 euro. **687 851 740** Ederne.

EROSI

Andoain inguruan **lur sail** eder baten bila nabil. Cesar Sistiaga. **620 720 694**

MERKATU TXIKIA:

diseinua@aiurri.eus **619 163 537**
Arantzibia 4-5, behe. ANDOAIN



- **Astero zozketa: KMO produktuez betetako otarra.**
- **Aurreko asteko irabazlea: "Joseba" (22. sailkatua).**



62.000 lehiakideen artean onena

Egunean Behin lehiaketa aski ezaguna da euskaldunentzat, milaka lagun jolasa bilakatu baita. Euskarazko APP aplikazioen artean erabilera handiena du. Denboraldi berriko lehen astean, lehiaketako onena Jon Iraola andoaindarra izan da

Mikel Arberas ANDOAIN

62.000 erabiltzaileen artean Jon Iraola andoaindarra izan da onena, Egunean Behin lehiaketako lehen astean. Azkar eta ondo erantzuteko sekretu eta gomendioen bila, Aiurrik bera-rengana jo du.

'LeiO' erabiltzailea zara, Egunean Behin lehiaketako onena. 62.000 erabiltzaileen artean lehen postua lortzea meritua handikoa da. Nola bizi izan zenituen azken egunak?

Astea luze joan dela aitortu beharko nizuke. Jokoa ongi hasi nuen, baina iganderarte emaitza berdina mantentzea zaila egin zitzaidan. Ostiral aldera, irabazi nezakeela sinetsita nengo, baina urduri ibili naiz asteburuan. Zorte kontua ere badelako, eta lehia azken unera arte estu joaten delako.

Gauza askori buruz erantzun behar da, eta azkar batean. Pantailaren aurrean zein da zure jokabidea? Nola lortzen duzu horren azkar eta ondo erantzutea?



Jon Iraola. AIURRI

Denboraldi batzuk badira jolas-ten dudala eta neurria hartzen joan naiz. Galdera batzuk ez dira errazak, eta deskartez erantzuten ditut, segundo bakoitzak zure alde joka dezakeela jakitun. Batzuetan ongi ateratzen da, eta

besteetan ez. Baina batzuetan hobe da 9 galdera asmatzea 30 segundotan, 10 erantzunak 60 segundutan asmatzea baino. Zer esanik ez, arriskatu duzun horretan erantzuna zure alde ateratzen bada.

Zeintzuk dira bereziki zailak egiten zaizkizun gaiak?

Jendearen adinarekin izaten ditut tira-birak. Txarra naiz pertsoneri urteak jartzen. Gertatu izan zait ere, banekien galdera bat gaizki erantzun dudala konturatu eta hurrengo galderetan blokeatuta geratu izana.

Hamar asteko lehiaketa da, gaikaldean jarraitzeko animoso zaude?

Zergatik ez? Gustatuko litzaidake, baina ez da erraza. Batzuetan, emaitzaren zain nagoen segundorietan argi daukat: "Gaur hamarrak asmatu ditut". Beste batzuetan: "Buff! Gaurkoa zaila zen" etortzen zait burura. Eta zaila egin zaidan horietan, zortea izan dut noizbehinka. Baina beti ez. Egun horietan balantzak zure alde egiten badu, goran egon zaitezke, baina ahal dela, ahalik eta gutxienetan bukatu behar duzu sentsazio horrekin.

Aholkurik bai lehiakideentzat?

Azken egunean, adibidez, atzetik nituen lehiakideak jokatu arte itxaron nuen. Behin beraiek jokatu banekien 8ko edo 9ko azkar batekin, lehenengo bukatuko nuela astea. Tarteka sailkapena begiratzea ez dago gaizki. Bestela, segundoei ondo erantzuteari bezain besteko garrantzia ematea gomendatuko nuke. Pentsa, 10 galdera 20 segundotan asmatuta 100 puntu dira. 30 segundotan, aldiz, 94. Ia ondo erantzundako galdera bat bezain beste balio dute 10 segundok.



Aspillako saria, astean behin.

Ehunka lagun bildu ditu Aiurri taldeak

Andoaingo eta Urrietako jokalaria askorentzat erreferentziaztako taldea bilakatu da "Aiurri"koa. 400dik lagun ari dira maiztasunez jokatzeko, eta badute beste talde askok ez duten amua: astean behin banatzen den saria. Denboraldi honetan Aspilla baserriko otarra zozkatuko da. Oraindik izena eman ez duenak Aiurri.eus webgunean klik egin eta Egunean Behin atal berezian xehetasun guztiak aurkituko ditu.



HEDABIDEekin
ERE BAI



AIURRI, ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK



28 €

Harpidetza egiteko,
Aiurri.eus webgunean:
aiurri.eus/bazkidetu/



AIURRIKO HARPIDETZA KANPAINA BEREZIA

Urte osoan zure pantailan agertzen gara

Bide beretik jarraitzeko harpidedun gehiagoren beharra dugu

Izan zaitez harpidedun, eta pantailan ikusten dituzun albiste, bideo eta argazkiez gain, Aiurri aldizkaria eta astekaria etxeraino eramango dizkizugu

Apirila-abendua bitarteko eskaintza honen kostua 28 eurokoa baino ez da INOIZ EZ DA BERANDU!

BAT EGIN GUREKIN, BAT EGIN TOKIKO PRENTSAREKIN

*OHARRA: Dagoeneko harpideduna bazara ez duzu ezer egin behar. Kanpaina hau HARPIDEDUN EZ DIRENEI zuzenduta dago